

## KORONABIRUSA ATZOKO DATUAK

### GIPUZKOAN

451 positibo berri  
2.381 hildako EAEn  
29.975 positibo guztira\* UCIn EAEn

### NAFARROAN

160 positibo berri  
805 hildako  
38.024 positibo guztira UCIn Nafarroan

\*HERNANIN 1.032 (+12), ASTIGARRAGAN 231 (+6)

## «Garai honetan garrantzitsua da haurrak eta nerabeak eta haien familiak babestea»

Haur eta nerabeen eskubideen eguna da bihar eta Astigarragako Gaztelekuak aldarrikapena egin du beraien eskubideen inguruan. COVID-19aren pandemiak sortutako krisiak eguneroko bizimoduaren formak aldatu egin ditu.

### ASTIGARRAGA GIZARTEA

Haur eta nerabeen eskubideen nazioarteko eguna da bihar eta horren harira, Astigarragako Gaztelekuak aldarrikapena egin du haur eta nerabeen eskubideen inguruan.

COVID-19ak sortutako krisiak gizarte-dinamikak errotik eraldatzea ekarri du, eguneroko bizimoduaren formak eta praktikak aldatu egin dituelarik: «konfinamenduak ezarri ditu, maite ditugun pertsonen urrutzeak ekarri ditu eta hilabete batzuen buruan egoera zein izango den ez jakitearen ziurgabetasunak markatutako bizi-horizontera egokitu behar izan dugu. Nerabeen kasuan, bere bizitzako esparruak, hezkuntzatik hasi eta aisialdi eta sozialitate praktikak birmoldatu arterainokoa izan da. Aste gutxi batzuetan,

milioika haurren eta nerabeen bizitzak izugarri aldatu dira, Koronabirusaren epidemia geldiaraztea helburu duen neurriak hartu behar izan direlako.

### Eskubideak galtzeko arriskua hainbat arlotan ematen da

Areagotu diren haur eta nerabeen eskubideak galtzeko arriskua hainbat arlotan ematen da.

«Jarduera ekonomikoak etetearekin eta enplegua nabarmen murriztearekin zailtasun ekonomikoaren ondorioz, familien oinarrizko premiak asetzeko zailtasuna eta pobrezia areagotzen ari dira».

Babes gutxiago dago. «Familia-egituren ezegonkortasunak, presioa haunditzeak, estresak eta segurtasunik ezak areagotu egiten dute etxeko indarkeria eta abusua (sexuala) gertatzeko



Nerabeak ezin dute lehen bezala elkartu.

probabilitatea. Jazarpen zibernetikoa jasateko arriskua ere haunditzen ari da, haurrek eta nerabeek denbora gehiago ematen dutelako Interneten».

Eskola-itxierek eta urrutiko eskolatzeak (formatu digitalean) ikaskuntza-prozesua aldatzea dakarte, «eta haur eta nerabe guztiek ezin dute laguntza bera jaso formatu berri horretan eguneroko zereginak egiteko».

Haurrek eta nerabeek parte hartzeko eta esku hartzeko aukerak nabarmen murrizten dira, eta informazio gutxi dago haientzat lagunkoia diren formatuetan.

Gero ere, aldarrikapenean aipatzen denez, «haurren zaintza-zerbitzuak itxita daude eta familiaz kanpoko sareak ez dira modu egonkorrean funtzionatzen ari. Egoera bereziki zaila da gurasoek edo zaintzaileek osasun-sektorean edo larrialdi-zerbitzuetan lan egiten duten familientzat».

Hezkuntza-laguntza eta laguntza-aukeretarako sarbidea «ez dago denentzat bermatuta. Integrazioa ere zailagoa da».

Pandemia garai hauetan, «garrantzitsua da haurrak, nerabeak eta haien familiak ahalik eta gehien babestea». **K**

## KZ Guneak gaur hitzaldia, online

### HERNANI HEZKUNTZA

KZ Guneak zuzeneko hitzaldiekin jarraitzen du. *Sinkronizatu zure kontaktuak Google kontaktuekin* ikastaroa eskainiko du gaur euskeraz, 11:00etatik aurrera. Aurretik izena eman behar zen bertan partehartzeko. Datorren astean ere beste bi egunetan eskainiko da ikastaroa, *Podcastak entzuteko aplikazioak eta webguneak* izenburupean. Hitzaldiak ikusgai daude KZ Guneko YouTube kanalean.

## Ansak tailerra, erosketa ohiturez

### EREÑOTZU INGURUMENA

Ingurumenari eta hondakinei begira, tailer berezia eskainiko du gaur, Ereñotzun, Ainhoa Ansa aranoarrak: *Erosketa ohiturak aldatuz*. Auzo Udaleko areto nagusian izango da, Olak Auzo Elkarteak antolatuta, arratsaldeko 19:00etan. Eta saioan parte hartzeko, izena eman beharko da, alde aurretik: 688 780 356.

## CD. Hernaniren batzarrik ez dago

### HERNANI FUTBOLA

CD. Hernanik gaur egin beharreko ohiko batzarra bertan behera geratu da pandemiagatik indarrean jarri diren neurrien ondorioz. Batzarra Biterin kultur etxean egitekoa zen, baina oraingo ez da egingo.

## Luzuriagak, hitzaldia gaur

### HERNANI ERROTZEN

Hitzaldia eskainiko du gaur Iñaki Lopez de Luzuriagak, Hernani Errotzenek antolatuta. Itzultzailea eta Euskal Wikilarien Elkartearen batzordekidea da Lopez de Luzuriaga, eta galdera bat hartuko du abiapuntu, hitzaldian: *Zer egin dezakegu euskaldunok interneten?*

## Euskaraldian izena emateko epea azaroaren 24ra arte luzatu da, nahiz eta bihar bertan hasi ariketa

Azken beroketa egiteko gaur bertso saio tematizatua egongo da Astigarragan, Erriberan kulturgunean, 19:30etan.

### ASTIGARRAGA-HERNANI EUSKERA

Euskaraldian izena emateko epea azaroaren 24ra arte luzatu da. Egun horretan, gaueko 23:59ak arte egin daiteke. Euskera ulertzen duten hiztunen arteko hizkuntza-ohiturak aldatzeko ariketa soziala bihar hasik da, azaroaren 20an, eta

benduaren 4ra arte luzatuko da. Baina izenemateko aukera egongo da ariketa hasi eta lau egunetara.

### Oihana Bartra eta Sustrai Colina bertsotan, eta sarrerak Erriberan erosi daitezke

Euskaraldirako azkeneko beroketak egiteko, bertso saio tema-

tizatua izango da Astigarragan, gaur bertan: *Nahi dugu hitz eta jolas*. Arratsaldeko 19:30etan hasiko da, Erribera kulturgunean, Oihana Bartra eta Sustrai Colina bertsolariekin; Imanol Artola, Felix, ariko da gai-jartzaile lanetan. Sarrerak eskuragarri daude, Erriberan bertan: helduek 6 euro, haurrek 3 euro, eta Euskaraldian izena eman dutenek doan. Topaguneak eta Lankuk antolatu dute saioa.

Ia 600 pertsona daude izena emanda Euskaraldian, eta az-

keneko egunetan beste bultzada bat izatea espero dute. Izan ere, izena emateko aukera luzatu da, eta, orain, dinamikan parte hartzeko epemuga luzatu da. Horretarako, aste honetan megafonia-rekin dabilta herrian barrena, Euskaraldiko mezuak zabaltzen; eta eskuorriak ere banatu dituzte etxetik etxera, izenemate fitxarekin. Hori bete eta Udalak herrian dituen buzoietan uztea nahikoa dute astigarrarrek, hizkuntza-ohiturak aldatzeko ekimenean parte hartzeko. **K**

**BIKAIN**  
OKINDEGI TX GOZOTEGIA

**Eguneroko ogia beti bikain**

Elkano 12 - Tel.: 943 55 31 42  
Ezlagu poligonoa - Tel.: 943 55 00 89 20120 Hernani

**MENDIKUZE**  
OKINDEGIA, S.L.

Troia Ibilbidea, 14 - Pab. 6 - Ergobia  
20115 - ASTIGARRAGA

Tel 943 55 15 38  
(J) 630 38 79 10  
(S) 629 66 69 77

**AKELENEA**  
Erregegia - XIX Mendeko Sagardotegian

Koldo eta Ana

**ASTELEHENETIK OSTIRALERA**  
goizean kafeak eta pintxoak, eguerdian bazkaria  
(eguneko menua eta sagardotegi menua)

**ERAMATEKO ENKARGUZ**

Oialume bidea 57 - 20115 Astigarraga - 943 333 333 / 636 665 927

**EGURALDIA**  
**GAUR** Fronte batek giroa gutxi aldatuko du. Zerua lainotsu egongo da eta euria egingo du, batez ere goizean. Arratsaldean prezipitazioa askoz urriagoa izango da. **Min.11° / Max.15°**

**BIHAR** Apur bat gehiago freskatuko du. Goizean ez da bazterten euri apur bat egin dezakeenik, batez ere ipar partean eta ekialdean. Arratsaldean atertuko du eta ostareak gero eta zabalagoak izango dira. **Min.8° / Max.14°**

ARGITARATZALEA **DOBERA EUSKARA ELKARTEA**  
LAGINTZALEK **Hernaniko Udala**  
Aragarririkoa Udala  
Auzo Udala  
GOZUEKAKO UDALA  
ARANOKO UDALA

**TAXIAK:** 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037-948 514019 (Goizueta) **UDALTAINGOIA:** 943 248900 (Hernani) 943 335230-699 487 587 (Astigarraga) **DYA:** 943 464622  
**AUTOBUSAK:** Garayar: 943 556658 Areizaga: 943 452708 Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037 **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta) Egunez: **Castilla** Urbietan, 7 (Hernani) **943 552941** Gaeuz: **Urrutia** Etxeberri, 1 (Hernani) **943 557738** Goizueta: Nagusia 64 **948 514353**

**DOBERA BAZKIDEAK / KRONIKALARIAK**  
Gipuzkoako Foru Aldundia



## Gazte Koordinadora Sozialistaren jardunaldia bihar, Hernanin

Larunbatean kontzentrazioa antolatu da, 18:30etan Plazan eta gaur Andoaingo gaztetxean hasiko da hausnarketa politikoa.

### HERNANI POLITIKA

Buruntzaldeako Gazte Koordinadora Sozialistako kideek gaur, bihar eta etzi larunbatean, Andoainen eta Hernanin jardunaldi politikoa eraman-gotuzte aurrera. Azaldu zutenenez, jardunaldien helburuak dira «gaur egun garatzen ari diren kontrol mekanismo berrien

eta askatasunen urraketen in-guruko hausnarketa politikoa plazaratzea eta horiek egungo testuinguruan betetzen dituzten funtzioak azaleratzea».

Antolatutako jardunaldien baitan, hainbat gai jorratuko dituzte saio bakoitzean. Lehen jardunaldia gaur izango da Andoaingo Gaztetxean, 18:30etan.

Bigarrena bihar Atsegin-

degin, 18:30etan eramango da aurrera. Eta azkena etzi izango da, Atsegindegin, arratsaldeko 16:30etan. Ondoren, 18:30etan kontzentrazioa egingo da Plazan, *Burgesiaren diktadura zuzena gelditu* lelopean. «Bide horretan, gazte langileen kriminalizazioaz, jazarpen polizia-laz, kontrol sozialaren zentzu politikoz eta askatasun politikoz» jardungo dira egun horietan, besteak beste, eztabaidarako eta hausnarketarako gakoak emateko helburuarekin. **K**

## Aratz ikastetxeak pintxoak erosiko dizkiete ostiralero ostalariei

Aste bakoitzean taberna eta jatetxe desberdin batean erosiko dituzte hamaiketako egiteko eta Andre Kalen 21en hasiko dira bihar bertan.

### HERNANI HEZKUNTZA

Aratz ikastetxeak egitasmo berri-zaile bat jarri du martxan eta bihartik aurrera ekingo dio aurrera eramateari. Ikastetxe-

ko arduradunak azaltzen dute zertan datzan. «Gure eskolan ostalaritzaren egoerari laguntzeko nahian egitasmo txiki bat eramango dugu aurrera. Eramateko janaria prestatzen

dutenen artean, ostiralero pintxoak erosiko dizkiegu gure hamaiketakorako. Aste bakoitzean taberna/jatetxe desberdin batean. Aste honetan hasiko gara eta bihar bertan Andre Kaleko 21 zenbakian erosiko ditugu. Ezer askorik ez da, baina gure borondate onenarekin egin nahi dugu animatzeko eta diru sarrera txiki bat eman eta banatzeko». **K**

**JASOTA BEZALA**

Gutuna argitaratzeko ezinbestekoak dira: izena eta bi abizen, NAN edo EHNA erakustea eta telefona. | Gehienez 1.800 karaktere onartuko dira. | Kronikak beste hizkuntzetan jasotako kartak euskeratzen ditu. | Kronikak ez ditu bere gain hartzen sail honetan esaten direnak, edo itzultzeko garaian izan daitezkeen gaizki ulertuak. | Irainak, debaldeko salaketak eta difamazioak ez dira onartuko.

## PNVren iraganeko politikak, egungo gabeziak

Izugarria da sistemaren gabeziak egunero ikusten ari garen honetan PNVk duen gaitasuna dena ondo egiten ari direla ulertarazteko. Herritarrok infantilizatu eta gabezia horiek euren politika eta murrizketen emaitza zuzena direla ikusteko gai ez bagina bezala tratatzen gaituzte.

Noski egungo krisia COVID-19ak okertu duela, baina berriro ere berresten gara gure esanetan; krisi honek azaleratu dituen gabeziak orain pairatzen ari bagara ere, jatorria iragan-ean dute, urteetan zehar PNVk, PSEren babesarekin, egindako politika neoliberalaren emaitza dira.

Ez diogu PNVri eskatzen Ezker Abertzalearen hitzei erreparatzeko, gehiegi eskatzea litzateke, baina bai greban dauden milaka langileak, astero kontzentratzen diren osasungintzako eta hezkuntzako langileak,

nola kaleak hartzen dabilzan ostalariak behingoz entzun ditzan. Eurak dira herriaren hase-rraren erakusle zuzenak.

Nazkatuta gaude: Nazkatuta sistema publikorako errekur-sorik ez dagoela entzuteaz, en-presa pribatura milaka milioi bideratzen dituzten bitartean; nazkatuta herritarren portaerak kriminalizatzen dituztela ikus-teaz, urteetan osasun eta gar-raio sistema publikoa ahultzen joan diren bitartean.

PNVren egiteko moduaren erakusle da ostalaritzarekin ger-tatutakoa; itxiera aurreikusten bazen ere, hori saihesteko edo sektorea babesteko aurretiazko neurririk hartzeko aukerarik ez balego bezala jokatu dute beste behin ere. Orain udalari eskatzen dabilza laguntza ekono-mikoen bitartez eurak osatzen duten gobernuak eragindako gabeziak arindu ditzan. Grazia

izpirik ez duen txiste txar bat dirudi.

Pairatzen ari garen gabezie-tan PNVk duen erantzukizuna dela eta, bere ardurari behar bezala hel diezaion exijitzen diogu; bermatu ditzala beharra dutenen laguntza ekonomikoak, indartu ditzala osasun zein hezkuntza sistema publikoak, aktiba dezala garraio publikoa indartzeko plana, eta bertan behera utzi dezala poliziaren bi-tartez egiten ari den kontrol eta jazarpen soziala.

Aipaturikoak salatze eta PNVri arduraz jokatu dezan exi-jitzeko, etzi larunbatean kon-tzentrazioa egingo dugu Zinkoe-nean, 12:00etan.

**Mikel Von Wichmann, Manex Egaña Larramendi, Asier Gutiérrez Arribas eta Ainhoa Ortiz de Urbina**  
**Hernaniko Sortu eta Ernai**

## Energia aurrezteko tailerra, bihar online

### HERNANI INGURUMENA

Pandemiaren eraginez tailer presentzialak bertan behera geratu ziren 'Energia Argitu' programaren baitan eta orain berreskuratu dira online. Bihar egingo da, 18:00etan.

### Eskelak

Eskelak ilunabarreko 19:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

**RUTH MARTIN APECECHEA**

Gure ondotik joan zara,  
baina betirako izango zaitugu gure bihotzean.

**KANTUZ ABESBATZA**

Hernanin, 2020ko azaroaren 19an

**RUTH MARTIN APEZETXEA**

Oholtza gaineko magian...  
hortxe beti dantzan.  
Mila esker, Ruth

**TXIS PUN ANTZERKI TALDEA**

Hernanin, 2020ko azaroaren 19an

**RUTH MARTIN APECECHEA**

Zure irriparrak badu bere lekua gure artean

**OZENKI ABESBATZA**

Hernanin, 2020ko azaroaren 19an

**ENRIKE LARRARTE ARREGI**

Besarkada handi bat familia guztiarentzat

**BRINTZAKO ARANTZAREN LANKIDE OHIAK**

Hernanin, 2020ko azaroaren 19an

**ENRIKE LARRARTE ARREGI**

Historiari eta oroimenari egindako ekarpena  
zabaltzen jarraituko dugu

**HERNANI ERROTZEN ELKARTEA**

Hernanin, 2020ko azaroaren 19an

### OSTALARIEN TXOKOA

**Errioguardan eramateko menua.** GAUR: Kalabazina barazkiz bete garbantzuakin + Mediana eta langostino krepeak maionesa arin batekin + Etxeko yogurta naturala franbuesa mermeladarekin. BIHAR: Langostino entsaladilla + Bakailao frijitua piper berdeekin + "Brazo gitano" kremarekin bete. **10,5 €.**

### IRAGARKI MERKEAK

**Iñigo Royo Masajista.** Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesiologia, reiki, homeopatia, akupuntura,... **Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)**